

Mikel Zarateren

Bizipenen bultzadaz

Sarrera

Mikel Zarate nobelagile eran famatuagoa da olerkari eran baino. Dena dela, ez nobelagileak, ez olerkariak, ez dute merezi izan komentario labur bat ere. (Pentsatu ere ez azterketa serio bat!).

Gaur horren bigarren olerki liburua komentatuko dugu: *Bizipenen bultzadaz*¹. Lehenengoak, *Higidura berdez*, «Ciudad de Irún» saria irabazi zuen, eta argitaratzea larregi atzeratu da.

Mikelen konkurtsozaletasuna jarraituz, *Bizipenen bultzadaz* ere Iruñeako sariketa batetara aurkeztu zen, baina ez zen garaile irten.

1. — Gainbegiratua

Komentatzen ari garen liburuak, lehenengo baino helduagoa dela ematen du. Hau esateko, bost arrazoitan oinarritzen naiz:

1.1. *Liburuaren titulua*

Higidura berdez liburuak, sinbolista hitz-tzat kontsidera dezakegun titulua darama. *Bizipenen bultzadaz*-ek, idazlearen esperientziagaz zer ikusia duen liburua opa digu.

Sinbolismoaren edo modernismoaren eragina, handia izan da gerra osteko Espainia osoko mugimendu literarioetan; baina ezin dugu ahaztu, beste erro askoren artean, existentzialismoak bultzatuz, poesia realista batetara jo dugula. Gure artean, Aresti izango zen realismo horren bultzatzailea. Honen ostean, poesiak, gaiaren bila eta forma ahaztu barik, tarteko bide bat hartu du. Euskal Herriko poesia gehienak esperientzia bat, bizitutako sentimendu bat du iturburu. Nik uste, bide horretatik abiatzen da komentatzen dugun liburua ia osorik².

1.2. *Liburuaren egitura*

Testua hiru zatitan banatua ageri da, hasiera eta amaiera deituriko poema bi ere atari eta etxoste moduan dituela. Parte bakoitza, idazlearen sentimendu bati dagokio: lehenengo zatian, *atsekabea*, bigarrenean *atsegina*, eta hirugarrenean *esperantza*.

Ordenaketa honek, ordenu dialektiko batetan jartzen ditu idazlearen bizi-sentimenduak; baina, holako ordenuak logikoak eta irakurlea liluratzeko izan arren, gero problema birekin aurkituko gara.

Alde batetik, atari bakoitzean dauden poesiak pilakatuak bezala agertzen dira, beren batasun bakarra tituluari jarritako sentimendua izanik; baina, benetan, era askotako sentimenduak agertzen dira, eta era desberdinetako sentimenduon pilaketa gertatzen da atala.

Beste aldetik, estruktura hau erabiltzeak desekilibrio bat sortu du liburuan. Lehenengo parte bietan, euskarari buruzko olerkiek ez dute proportzio handirik. Esperantza deituriko azken zatian, bost olerkitatik lau euskarari buruzkoak dira. Preokupazio handirik ez zena, esperantza inportante bihurtu da.

1.3. *Sonetoaren erabilera*

Argi dago, sonetoa estrofa zail bat dela, eta garai askotan estrofa perfektu bezala kontsideratua. Hori omen da poeta baten trebetasuna probatzeko landarik lehorrena.

Euskal poesian ez da gehiegi landu sonetoa. Mikel Zaratek sei soneto aurkeztean ditu liburu honetan. Asko dira, hain anti-klasiko esaten den garai honetarako. Zarateren sonetoek euskal ritmo bat bilatu nahi dute, 11 silabok 5 + 6 eratuz.

Beste aldetik, indar berezia dago horietan. Gernikari eskainitako «1937, Apirilak 26», liburua irekitzen duenak, aparteko edertasuna du, liburu honen poemarik onenetarikoa izanik.

1.4. *Banguardismo estrofoak murriztea*

Mikel Zaratek tedentzia (nire ustez txarra den tendentzia) bat du: banguardismoari lotzea poema batzutan.

Poema batzuk, honen liburuetan, irudi bat egiten dute tipografi aldetik: txori bat kaiolan (*Ipuin antzeko...* liburuan), etxe uniforme moderno bat (*Higidura berdez*). Honetan ere agertzen dira. «1933. Martxoak 6» deitu poemak txori batzu hegan figuratu nahi ditu. Nire ustez, tipografiak ez du inoiz poema bat aberasten. Mamiaren eta formaren arteko katea da poesia. Horrelako joku tipografikak banguardistek modan ipiniak dira; gaur ez dira erabiltzen.

Baina Mikelek behin eta berriz idazten ditu horrelakoak. Problema da, horrelako poemak direla flojoenak liburu osoan. Badirudi joku batez ezkutatu nahi duela poemaren ahultasuna.

Ikuspuntu honetatik, niretzat, liburuak irabazi egingo luke horrelakoak kenduaz.

1.5. *Egoera sozial eta politikoak bultzaturiko poemak*

Komentario hau hastean azpimarkatu genuen bizitzatik sortzen zen poesiak duen indarra.

Argi dago, gaurko Euskal Herri honetan egoera politikoak duen eta izan duen inportantzia. Gaur hemen bizi garenek gerratearen, gerra ostearen eta diktadorearen pausok markatuak geratu gara.

Ez da harritzekoa egoera horrek poetak mugitzea. Harritzekoa ez da hori, baizik gaur egun Euskal Herrian argitaratzen den poesia politikoaren urritasuna.

Zarateren liburuan (batez ere Atsekabezko bizipenetan), ugarri agertzen dira olerki politiko deituko nituzkeen poesiak. Gernikako bonbardeoa, euskararen zapalketa, zapalketa politikoak, eta (Atseginezkoen artean) Frankoren heriotza, bizipen pertsonak batetik gure herri guztiarentzat balio duten poema unibertsalagoak egiteko asmoz.

Indarra eta edertasuna dute poemok. Ez bakarrik guztion barruan bakoitzaren afektibitatea ukitzen dutelako, baita poemak gogorrek direlako, eta forma aldetik indarkeriaren eta beldurraren (bizitza zegoen jokutan) arteko elkarriketa larriaren ispilu direlako ere. Irakur bitza irakurleak: «1937, Apirilak 26», «Haurra izan nintzen baina» eta «Buenas días»: Herri makal honen lurretan sentitu diren beldur hotzikarak sentituko ditu berriz.

2. — Gaiak

Liburuak gai nagusi bat du: idazleak bere bizitzan jasotako esperitntzia. Baina hau era askotakoa da.

2.1. Idazlea ukitu duen kanpoko esperientzia batetan oinarrituak, esate baterako: paisaje baten aurrean sentitutakoa eskaintzen du «Dantzan, dantzan» poeman, bere jaiotza «1933, Martxoak 6»n, bidaiak: «Altzairuzko arranoekin munduz mundu»n.

2.2. Idazlearen barruko esperientzia: Ia Filosofia bihurtzen da poesia. Aurrekoak forman oinarrituriko poema labur eta arinak baziren, oraingook («Oroitzapena», «Duda-mudatan») mamiari lotutako poemak dira, sakonak, metro luzea behar dutenak.

2.3. Idazlearen lana: Olerkigintzak badu poeta guztiengan apartekoa den buruhauste bat. Olerkia, olerkaria, gizartea eta hauen arteko harremanak askotan agertzen dira liburuan.

2.4. Gizartearen hutsak: kutsadurari buruzkoak, e.a.

2.5. Euskara: Liburuan leku asko behar izan du gai honek. Idazlearen barnetik (guztion barnetik) sortzen den problematika. «Euskara» gaiak era asko hartzen du: batzutan, euskara ikasten dutenci eskainitako olerkiak, euskara eta Euskal Herria bateraturik; bestetan, euskal deituren mitoa deuseztatzen; edo «euskara batzen ari diren guztiei» eginiko poeman, bere herri euskaldunari dion mina eta maitasuna agertuz; azkenik, «1978» Euskal Herrian sufritzen dugun deseuskalduntze prozesua protestatuz.

2.6. Gai politikoa: Era askotakoa hau ere: haur denborako gerratea; ostean sufritutako garaileen gorrotoa; Errejimenari egindako lehen protestak; eta Frankoren heriotza. Poema honetan ikusten da Mikel Zarateren poesian agertzen den teknika bat. Beti, nahiz eta jazoera inportantea izan gizarte batentzat, haren ikuspuntu intimistatik ikusia dago. Poemak galdu egiten du honela. Poemaren barruan sartzen diren bertsoak inportanteagoak dira poema bera baino. Eta arrazoia, hauxe dateke: bertsoetan gizarte mailan jartzen da jazoera, jazoerari bere garrantzia emanez; Zaratek, ostera, neurri pertsonal batetan jartzen du; eta interesa galdu erazi dio.

3. — Estiloari buruzko notak

Hemen nota batzu jarri nahi nituzke, idazle baten estiloa definitzeko, lan hau baino zabalago bat beharko bait genuke.

3.1. Oparoa eta aberatsa deitu dezakegun estiloa darabil Zaratek. Baina izenlagun bi horiek jartzeak ez gaitu asko argituko estiloari buruz. Beharrezkoa dugu, bada, gauzak konkretatzea. «Estilo oparoa» esanaz, amplifikazioaranzko tendentzia duen estiloa kalifikatu nahi dugu. Hori egiteko, cuskara aberatsa behar da; bestela, aspertu egin gaitzake. Hona hemen, nire ustez, Zarateren bigarren arriskua, aberastasun hori joko huts eta azkenik, kantsagarri bihurtu (badira horrelako poemak: «Dantzan, dantzan», adibidez).

3.2. Estilo aldetik, aipatu beharra da Mikel Zaratek duen kutsu herritarra. Bai estrofa aldetik, eta bai herri bertso eta herri kultura bat erabiltzen duelako materia poetiko moduan: erre-frauak, alegia...

3.3. Lehen irakurketan nabarmentzen den gauza bat, paralelismoen erabilketa da. Liburua zehar aurki dezakegu paralelismo hau. Batzutan, kontrakoak aurrez aurre jarriaz: irabazleak/galtzaileak; paisaje berria/paisaje zaharra; indarra/askatasuna («1937, apirilak 26»).

3.4. Poemen estruktura aldetik, poemak ez dira zailak. Sone-toak aparte utziko ditugu, estruktura zabala bait dute. Besteetan honelako estroturez baliatzen da:

— Etribillo batez loturiko poemak. Etribillo hori behin eta berriz agertzen da leit-motiv moduan.

— Beste batzutan, klabe narratiboa jarraituz, hain atsegingarri zaizkion alegiak idazten ditu.

— Elementu batez baliaturik estruktura eraikitzen da. Elementu horiek ezberdinak dira: jokoak («Lanetik kirola»), abiada («Abiadaren irudikeria»), oroimenak («Agur, Jose Mari, gero arte!»). Honela, elementu ezberdinen pilaketak bihurtzen dira poemak. Pilaketa ez da nolana hikoia izaten; honelako poemetan klimax bat bilatzen da, eta pilaketa horrek amaieran aurkitzen du sentidua.

4. — Azkena

Bizipenen bultzadaz, liburu irregularra gertatzen da niretzat. Baina baita liburu atsegingarria ere. Gorago esana dago, ez dela larregi lortu liburua:ren batasuna. Batez ere, (arrazoia ere azaldua dago) esperientzietatik sortutako liburua denez gero, arrisku batetan dagoelako idazlea: bere azalezko esperientzietan eta

irakurleengandik urrun geratzeko arriskutan. Azken batez, ejer-
tizio poema bihurturik.

Esperientzia sakonak (gerratea, existentzialismoa, euskara)
poetizatzen ditueneari ematen du Zaratek bere benetako neu-
rria³. Honelako poemok kalitatezkoak dira, goi mailakoak, no-
belagile bezala erakutsitako trebetasuna, olerkigintzan erakusten
dutenak.

Laburtuz, bada, irakurtzea merezi duen liburua. Poema on
askoren artean, hotz geratzen diren batzu ere aurkituko dira;
baina, denetan, Mikel Zarateren estiloaren maisutasuna topatu-
ko da.

Jon Kortazar

¹ ZARATE, Mikel: *Bizipenen bultzadaz*. Leopoldo Zugaza. Irrisko
xorta, 6. Durango, 1978. 71 or.

² Liburu osoa ez, Zaratek banguardismo alorreko poesiak ere egiten
ditu eta.

³ Esperientzia sakon/azalekoak horrela banatzea nire kritzi bat bada
ere, eta, kritzia denez, subjektiboa, poemen kalitatean ere isladatzen dela
uste dut.